

2024ko apirilak 14 Oartzungo Txokoak

HAURTZARO MENDI TALDEAREN irteera

- **Eguna:** 2024-04-14, igandea.
- **Irteera:** 09:00etan Iturriozko frontoitik.
- **Itzulera:** 13:15ean, Iturriozko frontoian.
- **Ibilbidea: 10 kilometro.** Haurtzaro Ikastolako mendi taldea berriro martxan dugunetik hau izango dugu bigarren irteera. Ibilbidea Iturriozko frontoian hasiko dugu eta Ozentzio bidean gora abiatuko gara kaleari izena ematen dion basilizara. Bidean Garañoko iturria eta latsagia ezagutuko ditugu, eta hor helduko diogu aldapari. Garai bateko gurdibidean gora, Matxilenda baserrira iritsiko gara, eta pistan aurrera eginda, Ozentzioko basilizara. Ozentzio atzean utzi eta aski ezaguna den Sorondora joko dugu, eta bertan, baserriaren eskuin aldetik doan bidea hartuko dugu Hirubidetako bordaraino. Hemen bide eroso utzi eta eskuinera doan bidezidorrean behera joango gara Sarobe erreka bazterretik berriro Iturriotza itzultzeko.
- **Izen-ematea:** <https://forms.gle/gXJwPY6cnG982vnF9>



OHARRAK:

1. LH3tik gorako ikasleek izango dute irteeretara etortzeko aukera.
2. Eraman beharrekoak: arropa eta oinetako egokiak, zira, hamaiketakoa eta ura.
3. Rafting-eko irteera Tula Laika jaialdiarekin batera denez, maiatzaren 19ko iragarrita genuen irteera ekainaren 16an izango

